

Lawrence Abu Hamdan
John Akomfrah
Vicente Ameztoy
Joxean Artze
Artze anaiak
Tarek Atoui
Txomin Badiola
Zbyněk Baladrán
Josu Bilbao
Fernand Deligny
Peter Friedl
Dora García
Francisco de Goya
Susan Hiller
Höllner & Parreno
Kimia Kamvari & Nader Koochaki
Louise Lawler
Erlea Maneros Zabala
Jon Mantzisor
Remigio Mendiburu
Asier Mendizabal
Itziar Okariz
Pauline Oliveros
Olatz Otalora
María Salgado & Fran MM Cabeza de Vaca
Lisa Tan
Amaia Urrea
José Mari Zabala
José Luis Zumeta

Mikel Laboa, zalantzarik gabe, euskal kulturako pertsonaia karismatikoenetako eta kuttunenetako bat da. Artistak ez du parekorik izan herri-kulturaren eta sorkuntza esperimentalaren artean, sustraitze-adierazpenaren eta nazioarteko abangoardiaren artean, joan-etorrirako zubiak eraikitzen. Kontzeptu horien arteko erlazioa arte garaikidearen ikuspegitik aztertzea oso ariketa interesgarria da Tabakalerarentzat.

Erakusketa honen abiapuntua Mikel Laboaren *Lekeitioak* da; proposatzen den ikerketa artistikoak, *Komunikazio-inkomunikazio* izenburu iradokitzailearen babesean, hitzez hitzekoa eta ebokatiboa dena hartzen du barne, eta, musika, hitza, poema, performancea, abstrakzioa eta soinu esperimentalaren artean mugitzen da.

Idea horietatik abiatuta, prozesu kuratorialak lan-ildo berriak bultzatzen ditu, eta publikoari jarduera berriak ireki; jarduera horiek, aldi berean, erakusketa bera elikatzen dute. Laboak iradokitako mundu horren inguruko aurretiko prozesu horretatik sortu da *Musika dena eta eszena* arte bizien programa berria, erakusketan ikusgai egongo diren ekoizpen berriak sortzeko sorkuntza-egonaldia, edo martxoan egin zen *Non dago Lekeitio?* izenburua zeraman *Hizketaldi Handia* mintegia.

Uztailerako, San Telmo Museoarekin elkarlanean, *Ezbaikaria* mintegia antolatu dugu. Proposamen horrekin Laboaren unibertsoaren inguruko ikerketa-ildo berriak gurutzatu nahi dira. Halaber, udako hilabeteetan, *Lekeitioak* entzuteko aukera izango dugu Tabakalerako zinema-aretoan, hainbat gonbidaturen eskutik.

Horri guztiari esker, Tabakalera Mikel Laboaren kezka eta egiteko moduekin lotutako unibertso bat sortzen joan gara; eta egiteko honetan hainbat kolaboratzaile izan ditugu bidelagun, besteak beste: Maialen Lujanbio, Xabier Erkizia eta Itxaro Borda. Bestetik, Asier Mendizabal, Amaia Urra, Kimia Kamvari eta Nader Koochaki, Zbyněk Baladrán, María Salgado eta Fran MM Cabeza de Vaca artistek ekoizpen berriak egin dituzte espresuki erakusketa honetarako.

Halaber, funts publiko zein pribatuetako artxibo eta dokumentuak aurkituko ditugu erakusketan, baita hainbat belaunaldietako artisten obrak ere; hala nola Francisco Goyaren *Caprichos* serieko grabatuetako bat, José Luis Zumetaren *Gernika* eta Joxean Artzeren artxiboak, baita Lisa Tan artista estatubatuarrek Tabakalera sortutako *La lengua vasca en el diccionario* lana ere.

Tabakalera

Donostia / San Sebastián
2021eko maiatza

KOMMUNIKAZIO INKOMUNIKAZIO

Erakusketa proiektu honek **Mikel Laboaren** (1934-2008) lana hartzen du abiapuntutzat. 80ko hamarkadatik aurrera abiatu zuen *Lekeitioak* seriea erdigunean kokatuz, lan esparru ezberdinen gurutzaketa proposatzen du. Herri-kultura eta abangoardien arteko banaketa gainditu eta iraupen luze eta askotarikoak diren kezka formal eta bihurketak azalarazten dituzten artefaktuak dira *Lekeitioak*: musika-tradizio ezberdinak, abangoardia literario eta artistikoak, hitzaren soinu eta ahotsaren ezusteko efektuak taularatzen dituztenak.

Urteen joan-etorrian, Laboaren *Lekeitioak* lana entzuten den bakoitzean, entzule partikular bat sortzeko gaitasuna erakusten jarraitzen du. Horren zergatia azaldu nahi duen edonorentzat zaila da, ordea, funts hau arrazoiak xeheturiko unitate ezberdinetan aurkeztea. Halaberharrez, horixe baita artelanak propio duen berezitasuna: proportzio eta azalpen kulturaletatik at, jakintza arloen banaketa estuaren atzetik (ezkutuan) dauden zokoetara bidea egitea.

Beraz, gertukoak bezain ezezagunak diren lurraldeak izendatzeko beste modu bat baino ez dira *Lekeitioak*. *Komunikazio-inkomunikazio*, ulerterraza-ulertezina, herrikoia-elitista muturren artean, hautematen dugula ere ez dakigun hori hautemateko proposamen-saiakera batentzako toki-izena. Burua txoriz duen koblakariak bere lurra abesten du, edo lurra da harreman erritmiko bat ezartzen duena abestiarekin, txori(burua)ren bitartez? Edonola ere, *Lekeitioak* aipatzean, gatazka psikologikoetatik ihes egin behar da, egilearen mitologia desegin. Barnekoa eta kanpokoak, artea eta natura, abestea eta entzutea, psikismoa eta geografia banaezinak bihurtzen diren lekuez ari baikara.



Bazter hauek arakatzeko asmoz, artelan historiko zein garaikideak aurkezten ditu *Komunikazio-inkomunikazio* erakusketak, Tabakaleratik bultzatu diren ekoizpen berriei eta hainbat artxibotatik eratorritako materialekin gurutzaketan. Atal ezberdinetan banaturik aurkitu ditzakegun lan multzoek hizkuntzaren makinariak sortzen dituen adostasunak eta botere-harremanak seinalatzen dituzte. Ikusi eta entzuten dugun hori moldatzeko duen ahalmena kontuan izanda, musika eta hizkuntzaren jolas, erritmo eta azentuak ikastearen garrantziaz ohartarazten dute.

Hizkuntza ofiziala, dialektoak eta ahuntz-erdara

Ideologia erromantikoak musikaren eta kulturaren arteko harremana errotik eraldatzen duen herri-abestiaren ideia garatzen du. Musika-subjektibotasunak bide ematen dio —kritikoki— historia ulertzeko modu berri eta moderno bati, eta diziplinen gurutzaketan oinarritutako azterketari. Irekiera hori, ordea, anbiguotasun izugarritzko bi ideia egokitzearen ondorio izango da: hizkuntza eta herria.


Izan ere, hizkuntzak zeharkatzen bagaitu ere, ezin esan hari buruz hitz egitea erraza denik, ezta ziurtzat jo dezakegunik ere hizketaren gertaera azaltzera ausartuko den jakintza hura. Era berean, giza kolektibitatea zehazteko ahaleginak, errazegi joko du amankomunetik arrunkeriara (komuneko zulora). Alegia, herria (zer den ez dakigun hori) esentzia baten unitatearekin parekatzen duen eta hartara murrizten duen estereotipo batetara.

Dagoeneko 1774an, Johann Gottfried Herderrek, etnomusikologiaren historiarako *Volkslieder* sortze-kantutegiaren egileak, aitortuko du politikoki antolatutako gabeke herrien («Volk») eta geografiak eta hizkuntzak zehaztutako nortasun politikoa dutenen («Nazio») arteko bereizketa. Testuinguru horretan, herri-abestien bilketa eta hizkuntzaren batasuna estatu izan nahi duten herrien identitate nazionalaren oinarrietarako ekarpen bihurtzen dira nolabait.

Bilketaren eta araudi-helburuen artean, **Susan Hiller** (1940-2019) artistaren *Lost and Found* (2016) lanak hizkuntza lan-material nagusi bihurtzen du. Nahiz eta, kasu honetan, galdutako edo galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen ahozko dokumentuak aurkeztea kode menderatzaileetan disonantziak sortzeko modu bat den, eta ez erromantizismoaren memoria bera berreskuratzearekin lotutako ariketa bat.

Identitatea identifikazio eta kontrolaren sinonimoa da **Lawrence Abu Hamdan** (1985) artistaren *Conflicted Phonemes* (2012) lanean; artistak analisi linguistikoaren erabilere eta fonetika forentseari erreparatzen die. Asilo-eskatzailen jatorria zehazteko eta ondorioz herrialde batean sartzea baimendu ala ez erabakitzeke balio dutenak.

Josu Bilbaoren (1978) lanak gogorarazten digu hizkuntza biziak ez dituela kontuan hartzen berau egonkortu dezaketean egiturak, eta ez ezagutze horretan dagoela, halaber, haren indarra. Eraikin batean bezala, haren benetako egitura sute batek suntsitu ondoren ikus dezakegu bakarrik.



Lawrence Abu Hamdan
Conflicted Phonemes
Voce Mapping
 2012
 Xehetasuna

Argotaren logika legezko hizkuntza, ofiziala, ezarrita dagoena nahastean datza. Haren sintaxia eta egitura aprobetxatzea da xedea, kontraeredu bat sortzeko. **Louise Lawler** (1947) artistak *Birdcalls* (1976-1981) lanean hegazti-espezie desberdinen soinuekin artista ospetsuen izenen zerrenda bat erreproduzitzen du guztiak ere gizonak izanik.

Ezordua

Modernotasunak denboraren nozio homogeneous ezartzen du, denbora goranzko dinamika lineal baten barruan ulertuta aurrerapen historikoaren baldintzetan. Produktibo izatearen ikuspegian, denbora neurgarria den zerbaitera mugatzeak, ordea, gizarte-harremana gutxieneko adierazpena eramaten du; ondorioz, sortuko den hutsuneak bultzatuta, hainbat eta hainbat erritu eta kultur adierazpen sortuko dira landakoa, jatorrizkoa eta propioa denaren bilaketa nostalgiko batean.

Iraganarekiko lotura horri artista eta sortzaile askok erantzun diote oinordetzan hartutako tradizioarekin erlazio konplexuagoa proposatzen duten hainbat ereduren bitartez. Artelanari denbora-gezia saltatzeko pribilegioa ematen zaiola jakitun izanik, iraganaren alegiazko eraldaketa onartzen dute orainaldiko zeregin gisa edo agian etorkizun hobea lortzeko balio dezakeen jolas gisa.

Kultura oren ezaugarria zirkularra izatea bada, izatez haren iragana orainaldiari dagokio, eta orduan, José Bergamín poetak esaten zuen moduan, «sustraiak bilatzea adarra jotzeko beste modu bat da». Edo iragana eta orainaldia, historia eta irudimena gainjartzeko modu bat, bluesaren sakontasunetarako bidaia kosmiko batean —**John Akomfrah** (1957)—; musikaren historia kanonikoaren ahots ofizialak eta ez-ofizialak biltzekoa —**Pauline Oliveros** (1932-2016) —; edo soinu-forma tradizional batek geografiaren eta psikearen artean eragiten duen harremanean jardutekoa bertan galdu arte —**Itziar Okariz** (1965) —; herrialde baten fisnomia soziala mendi sakratu baten atletik sartzeko —**Joxean Mari Zabala** (1949) —; «herri» batetik noraezean ibiltzekoa, eta bere irudia (multzo itxi gisa) Subjektuaren eraikuntza historikoaren ispiluan islatutako irudi magiko dela ulertuta —**Josean Artze** (1939-2018) —; edo entzute-eredu utopikoak sortzekoa -azkenik-, zeinetan naturala denaren eta kulturala denaren arteko oposizioak gaindituz existitzen diren soinu guztiek -naturaren burrunbatik planetaren inguruan hegan dabilzan hegazkinetara- kontsiderazio berbera duten —**Höller & Parreno** (1961/1964) —.



Zbyněk Baladrán
Dialektikaren laudorioa
2021
Fotograma

Zer edo Ser (esan)

Hizkuntzaren kategoriak pentsamenduaren kategoriekin bat datoz. Filologoek ideia hori greziar filosofian *izan* aditza sortzearekin azpimarratzen dute. Aditz kopulatibo bat aldi berean existentzia-aditz bat izanaraztea urrats handia izan zen ezagutza-helburuak egonkortu nahi zituen proiektu baterako, nahiz eta horrek berarekin zekarren aldatzen, eraldatzen eta forma kontraesanezkoak hartzen dituen oro irrealia eta faltsua izatearen sinonimo bihurtuko zela.

Posible al da, entzutearen bitartez, pentsamenduaren funtzio identifikatzaile horren pedagogia bat? Konkretoa den horri errapatutako dion teoria baten alde egitea, objektibotasun unibertsal baten izenean irudia, objektua edo gertaera ezabatuko ez duena?

Lisa Tan (1973) artistak euskarazko hiztegi-jotzen du gogorarazteko edozein hizkuntzatan dauden hitz esanahidunak direla errealitate deitzen dugun eraikuntza hori sostengatzearen arduradunak. Nahiz eta termino batzuk ilustratzeko sartutako irudi batzuk konbinazio eta ezabatzeen jolas baten parte bihurtzen diren, zeinetan keinuak (ideiak) haren gehiegizko izaera nabarmentzen duen.

Ohikoa da esatea musikak hizkuntza bat, hitz egin eta ordenatu daitekeen testu-jarraila eta ordenatu bat eratzeko duela, bere sintaxia, morfologia eta gramatika dituela. Adibidez, txalapartak agerian jarriko luke gramatikaren oinarria bi posizio trukagarri eta osagarri, hau da, *zua* eta *nia* seinalatzetik hasten dela. Gauza bera gertatzen da **Tarek Atoui** (1980) artistaren lanarekin; izan ere,

artistarentzat, instrumentu berri bat diseinatzea eta ekoiztea erritmoaren jarraitutasunean oinarritutako gizarte-harreman baten aukeran pentsatzeko modu bat da. Baina, era berean, zenbait musika-markak zuzentzen dute hizketaren antolakuntza bera. **Remigio Mendiburu** (1931-1990) artistak irrintziari buruz egindako marrazkiak hitzaren eta musikaren arteko muga klasikoetatik harago badoaz ere, energetiko eta inartikulatu hutsa denari lekua egiteko.

Zbyněk Baladrán (1973) artista Bertolt Brechten obrara eta harek dialektika ulertzeko duen modu berezira itzultzen da lan honetan. Oraindik gertatu ez denaren iragarpenei eta fenomeno ezkutuei bide ematen dieten testuak eta poemak. Ezinbesteko erreferentzia da Laboarentzat; puntu asko aurki ditzakegu amankomunean alemaniar egilearen lanaren eta Lekeitioen artean. Biek erabiltzen dituzten jolas, elkarrizketa eta keinuek irakurle edo ikus-entzulea jarrera hartzera behartzeko ahalmena dute, izan ere, zer hautematen ari diren erabaki beharra daukate: Guztia txantxa bat ote da? Zentzurik gabeko istorioak dira? Edo modu poetikoan itzultzen den jakintza zahar bat, agian?

Ni ez naiz hemengoa

Gramofonoari esker, musikaren soinua belarrira heltzen da zuzenean. Telefonoarekin gertatzen den moduan, grabatutako ahotsaren eta entzutearen arteko distantzia desagertu egiten da eta norberaren barruan ahotsak entzutearen zentzugabekeria erreal bihurtzen da. Haren ustiagarritasun teknikoaren garaian, entzutearen historia zoramenaren historiaren paralelo doa. «*Speaker*-a delakoa gramfonoaren orratz batekin txertatua izan den norbanako bat da», baieztatzen du Ramon Gómez de la Sernak.

Industriak eta komunikazioak nerbio-sistema berri bat osatzen dute, eta informazio-fluxua ikerketa neurofisiologikorako objektu bihurtzen da. Artistek, ordea, uste dute hizkuntza narriatu egin dela eta poetika zatikatzearen eta desartikulatuta dagoenaren berri ematen hasten da. Hizkuntzaren mugak gainditzeko nahia alde guztietara zabaltzen da. Irudikapen modu berriak bilatzean, diagramak, eskemak eta ibilbide-mapak funtsezkoak izango dira barneko eta kanpoko ahotsak, kontzientea eta inkontzientea, komunikazioa eta inkomunikazioa nekez bereizten dituen jarduera psikiko bat identifikatzeko.


Fernard Deligny (1916-1996) pedagogoak herri-hizkuntza (dialekto gisa itzul daitekeena) aldarrikatzen du ikasitako

beste hizkuntza batzuen aurrean. Herritarra, hemen, ordea, bizitzeko modu bat izango litzateke, hau da, janaria prestatzeko, hizkuntza bereganatzeko, dibertitzeko, erditzeko, janzteko modu berezi bat; komunitate espezifiko baten bereizgarria dena. Haur autistekin egiten dituen mapek, hain zuzen ere, batek hizkuntzarekin egiten ez dakien horri erantzuten diote, eta asmoak edo kontzientzia definitua duten subjektuarekin zerikusirik ez duenari.

Haur horiek egiten dituzten marrekiko interesa **Mikel Laboak** —psikiatra gisa aritzen denean— Irunen bizi den neskato ijito batekiko erakusten duen interes bera da. Filmazio bat, orain desagertua, zeinetan neskatoa Kontxako hondartzan agertzen zen, jendearen artean mugitzen, pertsonekin jolasten, baina, aldi berean, bertan egongo ez balitz bezala; *Komunikazio Inkomunikazio* ikuskizunaren parte izatera iritsi zen.

Jon Mantzisorrek (1973), bestalde, 1999an Zarautzen egin ziren poesia esperimentaleko topaketen esparruan egindako telefono-dei batean oinarritutako lana aurkezten du. Ezagunak dira telefonoz hitz egiten hasi aurretik makilatu edo alkandora lotzeko joera duten pertsonen kasuak. Ahotsak eraginik izan al dezake, modu autonomoan entzunda, bestearen gorputzaz dugun pertzepzioan?


Kimia Kamvari eta **Nader Koochaki** (1986/1983) artistek keinuak eta argia elkartzen dituen antzinako teknika bat darabilte euren lanean. «Ilusio erreferentzialarekin» talka egiten duen erritmo baten bidez, lerroak marratzen dituzte hizkuntzaren barneko zerbaitera ustez bidaltzen gaituen horren eta pentsamenduaren artean. Zentzuaren fisika modu bat, keinua zintzilik jartzen duena.



**Kimia Kamvari
eta Nader Koochaki**
Bi ahur, hamar hatz
2021
Fotograma

VOX HUMANA

recorded
in England



Alfred Wolfsohn's
experiments
in extension of
human vocal range

Introduction by Dr. Henry Cowell

FPX 123 Folkways Records & Service Corp., New York

Alfred Wolfsohn

*Vox Humana: Alfred
Wolfsohn's Experiments
in Extension of Human
Vocal Range*
Folkways Records
Science Series
1956

Amaia Urra (1974) botanikako hainbat eskulibururen irakurketa eta berridazketatik abiatzen da, landareen bestelako sailkapen bat proposatzeko, zeinak ihes egiten dien zientziaren kategoria objektiboei, herri-kulturarekin eta beste logika semantiko, formal eta afektibo batzuekin lotutako sailkapenen mesedetan.

Zentzumenen gerra

Gure zentzumenen unibertso mediatikoak, ahotsa entzun eta ahotsa eta entzumena hedatzeko gailuek, Bigarren Mundu Gerran izan zuten esperientazio-eremua. Ezohiko indarkeria ezaugarri duen garai horretakoak dira magnetofono-zintak, goi-fidelitateko teknologia, estereofonia, sintetizadoreak eta ahots-kodegailuak (vocoder, besteak beste), baita FM irratia ere.

Zentzu horretan, bitxia da pentsatzea bitartekoen zabaltzea eta giza esperientziaren erabateko txirotzea batera gertatu direla. Lehen Mundu Gerran jendea gudu-zelaitik mutu itzultzen zela esaten da. Soldaduak ez ziren aberats itzultzen gerratik, esperientzietan pobreago baizik; izan ere, ez zuten lortzen beren bizipenei zentzua aurkitzea.

Gerran izandako esperientzia traumatiko baten ondoren, hain zuzen ere, hasi zen Alfred Wolfsohn kantu-irakaslea ahotsak sendatzeko dituen aukerak aztertzen. Behar bezain modu aktiboan landuta, ahotsak ahalbidetu egingo luke erreakzio

emozional erreprimituez jabetzea, oroitzapenak berreskuratzea eta hitzetan ez ezik ahotsean ere oinarritutako sendabidea aztertzea. Ahotsak esperientzia traumatikoaren maila emozionala adierazi behar zuen.

Baina egia esanda, ez dago esperientziarik esperientziaren transmisiorik ez badago, eta bere begiko ikasle Roy Hart (1926-1975) izan zen Wolfsohnen metodoarekin jarraitu eta zabaldu zuena. Euskal Herrian hainbat hitzaldi eta tailer eman zituen, eta Mikel Laboa egongaitzaren arreta erakarri zuen.

Jose Luis Zumetaren *Gernika* (1939-2020), bestalde, itzulpen piktorikoaren ariketa berezia da. Esperientzia traumatiko baten eta horri lotutako sinbolo baten artean diharduen instalazioa. Ez dago irudi zehatzik, baizik eta irudi bat zehazki. Ezin da bereizi objektuarekiko begirada irudiaren historikotasunetik, euskal imajinarioan behin eta berriz agertzetik, ezta haren aurrean egon daitekeen beti berritutako posizio-hartze batetik ere.

Olatz Otalorak (1990) aurkezten duen irrati-nobelaren arabera, pertsona bakoitzaren baitan ahots eta erritmo ugari bizi dira. Brecht eta bere irratiaren teoriari jarraikiz, hedabidearen aukera narratiboez galdetzen dio bere buruari. Une batzuetan, badirudi kantua eta mintzoa azentuazioaren bidez uztartzen dituela, irudi ezegonkorrak, biziak lortzeko. Hebreeraz «azentua» *taam* esaten da, eta ahoan daukagunaren gustua esan nahi du, jan eta esaten dugunaren gustua. Hitzak gorputzean sartzen dira, gauzak esan eta egiten dituzte.

Kodetze aurreale lineala

Kodetze aurreale lineala funtsezko prozedura bihurtu da, zeinak ordenagailuei gure ahozko komunikazioaren ekoizpena simulatzeko aukera ematen dien. Komunikazioaren ingeniartzak ekarpen erabakigarriak egin dizkio hizketaren industrializazioari, eta horrek hizkuntzaren neurrigabeko eta edukirik gabeko erabilera nabarmen areagotzea ekarri du.

Hortaz, giza esperientziaren irudikapena eta deskribapena —modernitateak hizkuntzaren eta errealtatearen artean zekartzan konbentzioak— idazketaren eta irakurketaren bitartekotza izatetik forma hutsean oinarritutako lengoai ez-kognitibo izatera igaro dira.

Karl von Frischek (1886-1982) egindako ikerketek erakusten duten bezala, antzeko zerbait gertatzen da erleen hizkuntzarekin. Etologoaren arabera, intsektu horiek, hizkuntza aurreale bat

dute, dantzetan oinarritua (elikagaiak lortzera bideratua), zerbait estatikoaren deskribapenarekin zerikusirik izango ez lukeena.

Idazketak ardatz izateari utzi dio, eta, prozesu honetan agian, hitzak —baita artearen iruzkinak edo artearen kritikak ustez bereak zituen haiek ere— diren bezala agertu ziren berriro: zuri-beltzeko markak paper gainean. Azken batean, interakzio eraginkor bat berehala lortzeko prozesuan, esanahia gainditu beharreko oztupo batean bihurtu da.

Txomin Badiolak (1957) egindako lan askok gardentasun-borondate hori, eta komunikazioaren ideia honen mezuen gehiegikeria etengabea aipatzen dituzte. Lengoaien erabilera instrumentalari uko egiteak trukea bitartekoen eta helburuen logikatik at dagoen ekoizpen batera eramaten du artista.

Dora García (1965) 2003. urtean urrezko esaldiak egiteko proiektu bati ekin zion. Esaera zaharrak, atsotitzak, esaldi ospetsuak, aipuak eta aforismoak bildu zituen, eta haien lotura komuna, labur bada ere, munduaren ikuspegi osoa ematea zen. Enuntziazioaren poetika bati eusten diote, non hizkuntzaren eta diruaren arteko harremana esplizitua den: denok bizi nahi dugu bizitza sutsuki.

María Salgadok (1984) eta **Fran MM Cabeza de Vacak** (1976) aurkezten duten soinu-instalazioa hizkuntza bereganatzeko uneari buruz Tabakaleran egindako ikerketatik sortu zen. Helburua ez da hori gertatzen den modu misteriotsua argitzea edo azaltzea; kasu honetan, misterioa gida bat da. Poema bat ez bada inoiz erabat ulertzen, elkarrizketa bakar batean ere ez delako inoiz dena ulertzen gertatzen da. Komunikazioa inkomunikazioaren une etena da, eta, alderantziz, inkomunikazioa konbentzio komunikatiboen une etena da.

Vicente Amezttoyren ustez (1964-2001), ahoa adimenaren kobazuloa da, gauzak izendatzeko ekintza gertatzen den tokia. Ariketa horren zailtasuna agerikoa da, hitzik eduki ez arren —gizakiaren arabera hizkuntzarik gabekoa—, modu adierazgarrian egituratzen den naturaren aurrean.

Epilogo (Antigonak / Lekeitioak)

1967an, New Yorkeko The Living Theatre antzerki-konpainiak bira bat egin zuen Bertolt Brechten *Antigona* lanarekin, besteak beste Bartzelonan, Sevillan, Bilbon edo Donostian. Ekitaldi horren tokiko sustatzaileen artean *Jarrai* antzerki-taldea zegoen, Iñaki Beobidek, Ramon Saizarbitoriak edo Xabier Letek sortutakoa eta

Laboa bera ere gertu zuena. Pasarte historiko honek, erabakigarria izan zitekeen esperientzia bat seinalatzen du parte hartu zutenen formakuntza artistikoan.

Baina, antzerkigileek dioten bezala, istorioa anfitatro baten antzera dago eraikia, eszena beraren inguruan, non ikusleek eta antzezleek hainbat posizio hartzen dituzten. Sofoklesek *Antigona* idazten zuen bitartean, Tuzididesek Historiaren kontzeptualizazioa eta mekanizazioa hasi zuen: Peloponesoko gerratik atera zuen hitzez hitz gaur egun gure kulturaren oraindik indarrean dagoen historikotasunaren kontzeptua.

Mende batzuk geroago, Mikel Laboak Gernikaren bonbardaketa ikusi zuen Lekeitiotik, eta oinarri dramatiko horrek emango



Asier Mendizabal
Plateau (sintagmatikoa
eta paradigmaticoa),
2021
Xehetasuna

dio, Lekeitioko euskalkiaren sonoritatearekiko sentitzen duen lilurarekin batera, *Lekeitioak* lanari forma.

Komunikazioa, bere mailaren gorenean, gerra da. *Niak* eta *zuak* posizio trukagarri izateari uzten diote, eta, autoafirmazio sutsu batean, elkar jaten dute. Gerra komunikazioa da, aurkariak aurrez aurre jartzen baititu. Trukatzeke aukera denbora errealean bermatzea du funtzio. Mezuaren igorpena eta harrera sinkronizatzea, garailea eta garaitua bereiztea, aldi berean hitz egiten ez dutela bermatzea.

Erretorika dramatiko horrek guztiak ihes egiten dio mendebaldeko ikuskera politikoa moldekatu duen arrazionaltasun instrumentalaren nagusitasunari, eta gure izaera eta orientazio psikikoa eratzen duten eredu mimetikoak daudela adierazten du. Antzinatearen aztarnak, jokabide eta mundu ikuskeratan dirautenak, baina baita forma artistikoetan, estiloetan eta adierazpen-ereduetan ere.

Zentzu horretan, *Antigona* bizirik dirauen irudia da. Justiziaren zentzuaren eta legearen arauen arteko gatazka bat sortzen den bakoitzean, mendebaldeko kulturak hitz, irudi, keinu, argudio, tropo eta metaforen bila, joko duen gramatika bat.

Letra larriz idatzitako Historiaren eta zentzumenei, erritmoari edo irudiari loturiko beste erregistro batzuen arteko aurkakotasuna erabiliko du **Peter Friedlek** (1960) *tableau vivant* baliabideari jarraikiz bideo bat sortzeko. Eszenaratze nahasgarri baten bidez, Friedlek hieroglifo bat osatzen du, ustez konponduta dagoen horri ihes egiten diona. Itxita behar lukeen ideia baten inguruan *nork*, *zer* eta *nola* kontatzen duen berrikusteko gonbitea, alegia. Soinu-banda Kurt Weillek Brechten *Happy End* komedia



Peter Friedl
Bilbao Song
2010
Fotograma

Erlea Maneros Zabala
October 22nd, 2001,
The New York Times
(Study 25)
2013



musikalerako sortutako *Bilbao Song* piezaren interpretazio instrumentalak osatzen du.

Hizkuntzaren plano semantikoa gainditzen duten prozesu sekuentzial horiei buruz hitz egiten du **Asier Mendizabalek** ere (1973) eskulturatik abiatuta. *Katemailak*, (*sintagmatikoa eta paradigmaticoa*) lanean, (2021) zentzuaren konfigurazioan parte hartzen duten ardatzak ez dira gaiaren enuntziatua, gaia bera baizik. Denboraren eta gramatikaren legeek hitzen korrontea zuzentzen dute, eta bata bestearen atzetik ilaran aurrera egitera behartzen dituzte. Baina, bizitza psikikoaren ustekabeko lekuetara eramaten duten noduluak, kateamenduak eta ibilbideak sortzeko joera dute.

Erlea Maneros Zabalak (1977) gerraren estetizazioari buruzko gogoeta egiten du, eta, horretarako, Afganistango inbasioan Ipar Amerikako prentsak erabilitako argazkietara jotzen du. Irudi horien paisaia-izaerak gerra ororen ezaugarri den efektu katartikoari buruzko gogoeta egitera eramaten du, nola egoera kolektibo bat sortzeko baliatzen den, zeinetan, hainbat komunikazio-estrategiaren bidez, inozentzia eta nagusitasun moralaren sentimendua irakats daitekeen. Herri baten funtsa etsaia erabat gizagabetzen duen estualdi baten antzekoa da orduan, eta horrek edozein gerrak eragiten dituen suntsipena eta miseria ikusezin bihurtzen ditu.

Lawrence Abu Hamdan

(Ammán, 1985)
Conflicted Phonemes, 2012
Instalazioa
Dos de Mayo Arte Zentroko CA2M
bildumaren kortesia

John Akomfrah

(Accra, 1957)
The Last Angel of History, 1995
Kanal bakarreko bideoa, kolorea,
soinua, 45'07"
Lisson Gallery London-en eta
artistaren kortesia

Vicente Ameztoy

(Donostia, 1946-2001)
La boca, 1979
Oihai gaineko olio-pintura
Bilboko Arte Ederren
Museoaren kortesia

Tarek Atoui

(Beirut, 1980)
The Reverse Collection. Lithophone, 2014
Instalazioa
Kadist Foundation-en eta
artistaren kortesia

Txomin Badiola

(Bilbo, 1957)
Dada la acumulación de pruebas,
(Bastardo) 4, 2009-2015
Eskultura
CarrerasMugica Galeriaren eta
artistaren kortesia

Zbyněk Baladrán

(Praga, 1973)
In Praise of Dialectics, 2021
4K bideoa, 16:9, kolorea, soinua, 5'59"
Ekoizpen berria

Josu Bilbao

(Bermeo, 1978)
sarà-sarà, 2020-2021
Eskultura
Artistaren kortesia

Bertolt Brecht

(Augsburgo, 1898 - Berlin, 1956)
ABC de la guerra, 1967
Argitalpena

Fernand Deligny

(Bergues, 1916 - Monoblet, 1996)
Le moindre geste (pasarte bat), 1971
Bideoa, zuri/beltza, soinua
ISKRAren kortesia

Peter Friedl

(Oberneukirchen, 1960)
Bilbao Song, 2010
Bideoa, kolorea, soinua, 5'53"
Artistaren kortesia

Dora García

(Valladolid, 1965)
Lengoaia espaziotik datorren birus
bat da, 2021
Frases de oro seriea 2003tik
Instalazioa
Artistaren kortesia

Francisco de Goya

(Fuendetodos, 1746 - Bordele, 1828)
Chitón, 1797-99
Akuafortea, urtinta eta gubila
paper gainean
Bilboko Arte Ederren
Museoaren kortesia

Susan Hiller

(Tallahassee, 1940 - Londres, 2019)
Lost and Found, 2016
Bideoa, kolorea, soinua, 30'
Lisson Gallery London-en kortesia

Höller & Parreno

(Brusela, 1961/Oran, 1964)
Maison-Oreille, 2013
Erretxina
Air de Paris (Romainville) galeriaren
eta artisten kortesia

Kimia Kamvari & Nader Koochaki

(Kolonía, 1986/Donostia, 1983)
Bi ahur, hamar hatz, 2021
HD bideoa, zuri-beltza, soinua, 7'52"
Ekoizpen berria

Louise Lawler

(Bronxville, 1947)
Birdcalls, 1972-1981
Audioa eta paper gaineko inprimaketa
The Lewitt Collection eta
artistaren kortesia

Erlea Maneros Zabala

(Bilbo, 1977)

October 22nd, 2001, The New York Times (Study 23), 2013

October 22nd, 2001, The New York Times (Study 24), 2013

October 22nd, 2001, The New York Times (Study 25), 2013

November 1st, 2001, The New York Times (Study 22), 2013

November 1st, 2001, The New York Times (Study 23), 2013

Akuarela paper gainean
CarrerasMugica galeriaren eta
artistaren kortesia

Jon Mantzisor

(Zumaia, 1973)

Komunikazioa-Inkomunikazioa.

Telefono dei bat Mikel Laboari, 1999

Bideoa, kolorea, soinua 4'47"

Artistaren kortesia

Remigio Mendiburu

(Hondarribia, 1931 - Bartzelona, 1990)

Irrintzi saila, izenbururik gabea, 1962

Tinta paper gainean

Seriaren lau ale

Mendiburu Inda bildumaren kortesia

Asier Mendizabal

(Ordizia, 1973)

Katemailak, (sintagmatikoa eta paradigmatikoa), 2021

Gaztainondo-egurra

Ekoizpen berria

Matrizea, 2019

Altzairu herdoilgabea

Plateau (sintagmatikoa eta paradigmatikoa), 2021

Aluminioa

Ekoizpen berria

(Chillidaren) zentoak, 2021

Inprimaketak paper gainean

Ekoizpen berria

Itziar Okariz

(Donostia, 1965)

Izar. Irrintzi aproximación San Telmo (1, 3, 4... 25), 2020-2021

Bideoa, kolorea, soinua, 10'

Artistaren kortesia

Pauline Oliveros

(Houston, 1932 - Kingston, 2016)

Postcard Theatre, 2013

Argitalpena

Col·lecció MACBA Centre d'Estudis i

Documentació bildumaren kortesia

Olatz Otalora

(Algorta, 1990)

Ortzi da zerua, 2017-2019

Audioa, 17'50"

Polentzi García musikatutako

eleberraren pasarte bat.

Ahotsak: Oier Iruretagoiena, Polentzi

García, Leo Burge, Mar Torre, Myriam

Petralanda eta Joel Englund

Artistaren kortesia

Maria Salgado & Fran MM Cabeza de Vaca

(Madril, 1984 / Kordoba, 1976)

A LA POESÍA LA LLAMA LENGUA A LA

LENGUA LA LLAMA CONTINUIDAD

A LA DISCONTINUIDAD LLAMA

RITMO AL RITMO LO LLAMA

LENGUA A LA LENGUA POESÍA A

LA POESÍA LA LLAMA RITMO AL

RITMO LO LLAMA CONTINUIDAD

A LA DISCONTINUIDAD LLAMA

LENGUA A LA LENGUA LA LLAMA

RITMO AL RITMO POESÍA A LA

DISCONTINUIDAD LA LLAMA

POESÍA A LA LENGUA LA

LLAMA DISCONTINUIDAD A LA

CONTINUIDAD LLAMA RITMO AL

RITMO LO LLAMA DISCONTINUIDAD

A LA POESÍA CONTINUIDAD, 2021

Zortzi kanaleko audioa, 48'28"

Ebaki-biniloa

Irudia: Rubén García-Castro/ANFIVBIA

Hizkuntza-aholkularitza: Isabel

García del Real

Ekoizpena: Lorenzo García-Andrade

Eskerrak: Alberto Bernal, Jesús Jara,

Leire López

Ekoizpen berria

Lisa Tan

(Syracuse, 1973)

The Basque Language in the Dictionary, 2021

Inprimaketak

Ilustrazioak: Juan Mari Arrizabalaga
eta Begoña Medel

*The English Language in the Dictionary
(horma-irudi bertsioa)*, 2021

Horma-papera

ekoizpen berria

Karl von Frisch

(Viena, 1886-1982)

*Dances of the Bees / Bundesstaatliche
Hauptstelle für Li*, 1950

Moving Image Archive. Indiana
University Libraries-en kortesia

Vox Humana

Science Series, 1956

LP

Folkways Records

Amaia Urra

(Donostia, 1974)

Sasia sugarretan, 2021

Iraupen anitzeko audioak, lastoa
eta posterra

Euskarazko idazketa- eta

ahots-laguntzailea: Saioa

Martin Telletxea

Ingeleseko bertsioaren idazketa-

laguntzailea: Toni Crabb

Soinu-teknikariak: Raul Lomas

Gancedo eta Rafael Martínez del Pozo

ekoizpen berria

José Mari Zabala

(Irun, 1949)

Axut, 1977

35 mm, kolorea, soinua, 83'

Euskadiko Filmategiaren eta

artistaren kortesia

José Luis Zumeta

(Usurbil, 1939- Donostia, 2020)

Gernika, 1999

Mihise gaineko olio-pintura eta

egurrezko eskulturak

Zumeta familiaren kortesia

Lekeitio. Mikel Laboa, 1985

Kartoi gaineko tenpera

Laboa-Bastida familiaren kortesia

Anonimoa

Axut, 1976

Litografia

Bilboko Arte Ederren

Museoaren kortesia

Anonimoa

Epaitutako emakume kolaboratzaileei
ilea larru-arras mozten diete zigor
moduan, Parisko (Frantzia) aldiri
batean, Bigarren Mundu Gerran, 1944

Bideoa, zuri-beltza, 1'09"

Critical Past-en kortesia

Txomin Badiola

*Dada la acumulación de
pruebas, (Bastardo) 4*
2009-2015



Dokumentazioa: The Living Theatre

The Living Theatre

Bertolt Brecht-en Sofoklesen Antígona-ren antzezpena, 1967-69

Bideoa, zuri-beltza, soinua, 120'
Dramaturgia: Judith Malina eta
Julian Beck
RAI Sede Regionaleren eta Consorzio
Teatro Pubblico Puglieseren artxiboa

Mikel Laboa

(Donostia, 1934-2008)

Bertolt Brecht (1898-1956), 1969
Mikel Forcadak diseinatutako
diskoaren azala
Mikel Forcadaren kortesia

Xabier Lete

(Oiartzun, 1944 - Donostia, 2010)

Eskandalotik azterketara, 1967
Eskuizkribua
Joxean Artzeren funtsaren kortesia.
Koldo Mitxelena Kulturuneko
liburutegia - Gipuzkoako Foru
Aldundia, Donostia

Anonimoa

Antígona irudikatzen duen horma-
irudia, The Living Theatre konpainiaren
eskutik, Victoria Eugenia Antzokian
(Donostia), 1967
Horma-irudia
Gráficas Valverde
Koldo Mitxelena Kulturunearen
kortesia. Gipuzkoako Foru
Aldundia, Donostia

Anonimoa

Gernikako bonbardaketaren
argazkiak, 1936
Fotografías Fondo CDBG, IHS
Gernikako Bonbardaketari buruzko
Dokumentazio Zentruaren funtsaren
kortesia. Gernikako Bakearen
Museoa Fundazioa

Dokumentazioa: Bat-Hiru

Mikel Laboa

(Donostia, 1934-2008)

Mikel Laboa, 1969
José Luis Zumetak diseinatutako
diskoaren azala
Bat-Hiru, 1974
José Luis Zumetak diseinatutako
diskoaren azala
Haika mutil, 1969
José Luis Zumetak diseinatutako
diskoaren azala
Arabako Artium Fundazioaren kortesia
Azken, 1964
Mikel Forcadak diseinatutako
diskoaren azala
Ez dok amairu, 1966
Mikel Forcadak diseinatutako
diskoaren azala
Mikel Forcadaren kortesia

Joxean Artze

(Usurbil, 1939-2018)

Hazi oro bitti, 1996
Mekanografiatutako eskuizkribua
Izenbururik gabea, 1996
Bertoak eta aipuak eskuz idatzitako
17 txartel
Poemak hitzez eta irudiz
Bi orrialde mekanografiatu eta eskuz
idatzitako oharrak
Bar-Restaurante Aurrera
Paperezko bi ahozapi, oharrekin
Dakienak, ba daki, nora goazen jakiteko
Mekanografiatutako bi orrialde
Ipar aize hotz zuriak...
Koadernoaren pasartea
Mundua gizonarentzat da egina
Mekanografiatutako orrialdea
Agian txoririk gabe inguruan, 1999
Eskuizkribua
Harzabal-Isturitzetik Tolosan barru:
neurthitzak
Horma-irudia
Isturitzetik Tolosan barru: neurthitzak
Liburua
Joxean Artzeren funtsa. Koldo
Mitxelena Kulturunearen kortesia.
Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia
Laino guztien azpitik..., 1973
Argitalpena
eta sasi guztien gainetik..., 1973
Argitalpena
Arabako Artium Fundazioaren kortesia
Hartzabal... bide bazterrean hi eta ni
kantari..., 1979
Artistaren autoedizioa

Artxibo eta dokumentazio materiala

Argitalpenak, aldizkariak eta dokumentazioa

España. Vanguardia artística y realidad social: 1936-1976, 1976

Argitalpena

La Biennale di Venezia 1976.

Environment, Participation, Cultural Structures Vol. 1, 1976

Argitalpena

La Biennale di Venezia 1976.

Environment, Participation, Cultural Structures Vol. 2, 1976

Argitalpena

Garaia 10, 1976-1977

Aldizkaria

Guadalimar: Especial País Vasco: arte, etnia, cultura, 1977

3 urtea, 25 zkia

Aldizkaria

Euskadi en la Bienal 76, 1976

Liburuxka

Euskadi en la Bienal 76 = Baschi alla Biennale 76, 1976

Horma-irudia

Arabako Artium Fundazioaren kortesia

Txalaparta

Iruñeko Topaketak

Artze anaiak txalaparta jotzen Iruñeko

Topaketetan, 1972an.

Artxiboko argazkia

Nebli aretoa (Madril)

Remigio Mendibururen erakusketaren

inaugurazioaren artxiboko irudiak.

Ekitaldi horretan, Zuaznabar anaiak

txalaparta jo zuten, 1965

Mendiburu Inda bildumaren kortesia

Diapositiba proiektorea

Arturo Delgado

Mikel Laboa kantautore donostiarraren emanaldia Herri Irratiak Anoetako belodromoan antolatutako *24 orduak euskaraz jaialdiaren baitan*


Zeruko Argiak antolatutako euskarazko musika kontzertua. Mikel Laboa parte-hartzaileen artean

Udarregi (1829-1895) bertsolariari eskainitako monumentuaren inaugurazioa Usurbilen. Oteiza, "Basarri" eta Sistiaga parte-hartzaileen artean

Mikel Laboa Elkarrek Lasarten duen grabaketa estudioan Iñaki Salvador pianojolearekin, Jean Phocas soinu teknikariarekin eta José Luis Zumeta margolariarekin batera. *SEI* diskoaren grabaketan zehar hartutako irudiak

Paco Mari. Marín Funtsa

Remigio Mendibururen eskulturak, *Homenaje al viejo lagar, Puño mazo, Homenaje al aizkolari* eta *Txalaparta* Kutxateka. Kutxa Fundazioaren kortesia. Argazki guztiak orjinalen kopia garaiakideak dira



Mikel Laboa

Bertolt Brecht (1898-1956)

1969

TABAKALERA



**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**

—

Andre Zigarrogileak plaza, 1
20012 Donostia/San Sebastián

Erakusketa-aretoaren ordutegia

Asteartea - Igandea

12:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00

Astelehenetan itxita

Informazioa

T +34 943 118 855

E info@tabakalera.eus

Bulegoa

T +34 943 011 311

E tabakalera@tabakalera.eus